

# SEME-ALABEI

## GUTUN IREKIA

Garazi eta Manex maiteok:

Duela 3 urte eta 8 hilabete, zuengandik apartatu nindutelarik, gutun luze bat idatzi nizuen. Ez zen testamentua, baina bai neure bizipenak, gogoetak eta pentsamoldea agertzeko modu bat.

Arinxeago, baina modu berean, zuei zuzentzea aukeratu dut gaur ere, gutun bidez. Badakizue ez naizela "aitonaren istorio zaharrak" kontatu zalea. Nahiago dut aurrera begiratu. Baina noizean behin retrovisoretik atzera begira jarri beharra dago, zer utzi dugun atzean jabetzeko ere. Perspektiba hori adinak ematen du, horra nire abantaila. Memoria historikoaren transmisioa ardura handikoa da niretzat, obligazioa aita batentzat, herentzia. Historiatik ikasi egin behar baita, zer baztertu, zer hobetu.

Badakizue gaur Ixaka Lopez-Mendizabal eta Migel Altzo sarietan bi hitz esatera gonbidatu nautela, hezkuntzaren esparruan. Gai bila nenbilela ikusi nuen nire aurreko batzuek, aurreko sarietako hizlariak, bakoitzak bere garaiko eskolari heldu ziotela. Gauza bera egitea otu zitzaidan neuri ere. Eta hasi nintzen hasi, eta luzeegi atera zitzaidan. Luzeegi, eta beltzegi. Han kontatzen nizuen nire eskola garaia (aspaldikoa, ezta?): eskola txiki bat zela, mutilena bakarrik (neskak aparte, guk bulartsu izan behar baikenuen eta haiek esaneko), eskola zaharkitua, maisu falangista, gurutzea eta Francoren irudi handia aurreko horman, eta eskolaren erdian estufatzar bat. Gure eskolan maiatzean *Con flores a Maria* abesten genuela eta urte osoan *Cara al sol* eskola hasteko. Eta gogoratzen ditudan batzuk eta geroztik jakin ditudan kontu asko kontatzen nizkizuen. Baina esan dizuet: luzeegi, eta beltzegi. *El Florido Pensilen* ikusi genuen gauza bertsua, eta gainera umorerik gabe.

Bai antzerki hura elkarrekin ikustean eta bai nire idazkitxo hau egitean, gauza bat bera nahi dut: memoria historikoa zuoi helaraztea. Aita batek bere seme-alabei eman diezaiekeen herentziaren parekoa da, berriz diotsuet. Memoria, gizabanakoaren bizitzan, familiar, herri batean, sendotasuna da, jakituria da. Memoria historikoak, ordea, ez du zertan izan kolore bakarrekoa, ez da nahitaez beltza. Gehienetan edo beti, memoria historikoaz ari garenean, hildakoen hezurak lurpetik ateratzeaz, edo injustiziak kitzatzeaz edo erreparatzeaz eta gisakoez ari gara. Ni ere holaxe aritu nintzen, alderdi negatiboak aipatu eta aipatu. Alderdi ilunak ez dira saihestu behar, ez dira zertan ahaztu, baina errealitatea askoz aberatsagoa da. Aurrera egiteko atzera begiratu beharra dago bai, zer baztertu jakiteko, noski, baina ez gutxiago zer ikasi eta zer hobetu jakiteko.



Luze eta beltz atera zitzaidan gutun hura paperontzira bota, eta beste hau idatzi dizuet, idazten ari natzaizue. Iragan beltza aipatu aipatuko dut, nola ez, iragana ez baita paperontzira bota behar. Aipatuz gainera aupatu egingo dut errealitate berria. Nire bizitzako bi unetan egingo dut geldialditxo: bata, txikitako eskolan, "jasan" nuen hartan; eta hogeita bost urte geroagoko historiaunean bigarrena, hori "bizi" izan bainuen: kultura berri baten jaiotza, eta tartean zuen hezkuntza sistemaren hasiera.

Esfortzu txiki bat eskatuko dizuet berriro. Koka zaitezte Francoren garaipen militarretik hamar bat urtera, 40ko hamarkadaren bukaeran. Koka zaitezte Foruan, Gernika errearen ondo-ondoan. Zuen aitak bonbardaketaren zauriak haragi bizitan ezagutu ditu Gernikan: teilatu gabeko hormatzarrak erdizka zutik. Ahopetik bada ere etxean esana zidaten hura Francok eta alemanek egin zutela. Eskolan jakin nuen egia, ordea, gorriek eta nazionalistek txikitu zutela Gernika.

Tamaina bereko aldaketa izan nuen hizkuntzarekin ere. Etxean eta herrian euskara baino ez genuen egiten, ez genekien besterik, telebista gabeko eta irrati bakarreko garai hartan. Eta bat-batean, sei urterekin, ate bat gurutzatu eta mundua aldatu zitzaidan. Hura eskola zen. Han debekatua zegoen euskaraz egitea. Zigorrik ez dut gogoan, eraztunik, baina bai debekua. Eta hizkuntzarekin batera, haren apologia: gaztelania zela etorkizuneko hizkuntza bakarra, ingelesa eta frantsesa desegitear zeudela, usteltzeko bidean.

Eta gurea, euskara? Euskara ez zen hizkuntza ere, dialekto hutsa, gure etxeko sabaian lantzean behin lo egiten zuen eskekoa baino pobreagoa, baserrietatik aparte inon mintzatzen ez zena (Gernikan ere astelehenetan bakarrik, azoka egunez). Itsusia gainera ("fonética de volapuk" zuela irakurri nuen gero), karrera on bat egin eta probetxuzko gizonak izan nahi bagenuen bazter utzi beharreko hizkera zela esaten zigun maisuak, guri eta gurasoei.

Burumakur itzultzen ginen etxera, genekien hizkuntza bakarraz lotsa-lotsa eginda.

Ezin zaitezkete konturatu zer den hori.

Zuek euskara ikasi duzue, euskaraz ikasi duzue, baina besteekiko arbuiorik gabe. Euskaraz gainera, gaztelania, ingelesa eta frantsesa ikasten dituzue. Alde ederra! Zorionekoak zuek!

Gaur baino lehen ere esan dizuet makina bat aldiz, ez naizela kexu (eta ez damu) eskolan gaztelania ikasi nuelako, euskararen aurka irakatsi zidatelako baizik.

Herriko eskolara joan nintzen. Ez da guztiz egia, eskola nazionalera joan bainintzen. Ez pentsa gauza bera denik. Han enteratu nintzen Forua Espainian zegoela eta Espainia munduko erdigunean, hantxe bertan, eta ez kasualitatez: "La tierra de España es la mayor parte de la Península Ibérica, colocada providencialmente por Dios en el centro del mundo" (Ignacio Menéndez-Reigada, *Catecismo Patriótico Español*, 1939).



Espainia munduaren erdi-erdian? Konbentzituta nengoen ni, huraxe ikasi eta ikasi pasa baintuen orduak eta egunak: Espainiako historia; Espainiako geografia: probintziak, mendi eta ibaiak buruz ikasi nituen denak; literatura espainola. Gainerako guztia "mapa mundi" zen. Urrutiko zerbeit.

Zuek Euskal Herriko historia, geografia eta literatura ere ikasi dituzue, nik nahi adina ez bada ere. Nik ez nekien Antso Handia bazenik, Axular nor zen, Aizkorri edo Bidasoa non zeuden. Euskal Herria, guri irakatsi zigutenez, ez zen zazpi, ez lau, ez hiru, baizik eta bi, eta biak gaiztoak: "probintzia madarikuak".

Zer ikusirik ez nire eskolak zuenarekin, ezta? Zorionez.

Baina ez pentsa zerutik jaitsi zaizuenik. Lortu egin da, eta zuen hezkuntza sistemaren atzean izerdi asko dago, lan handia, ezin konta ahala esfortzu eta ahalegin. Gustatuko litzaidake egunen batean patxada gehiagoz historia miragarri hau zuei kontatzea, zehatz eta mehatz. Jakin dezazuen bidea zein luzea izan den, gogorra tarteka, baina zein ederra aldi berean. Historia handi horren hiruzpalau urrats azalduko dizkizuet hemen, neuk hurbildik bizi izan ditudanak, sekula ez protagonista gisa, baizik eta lekuko hurbil.

Koka zaitezte orain 60ko hamarkadan, 70ekoan sartzeaz. Zuen aitak bizi izan zuen une historiko pribilegiatua izan zen hura. Aldaketa garaia, iraultzaldia. Astindurik ez zen falta. Sugea nola, gizartea ere azal lodikote zaharra botatzen ari zen, azalberritzen, gogoberritzen. Ez gurean bakarrik. Zabaldu begirada: desestalinizazioa, deskolonizazioa, Kontzilioa, 1968ko Maiatza.

Gure gizartea ere bor-bor dago: hamarkada honetan abiatzen dira gurean euskara batua, euskalduntzea, alfabetatzea, euskal kanta berria, bertsolaritza soziala deitzen dena, eta ikastolak. Hitz batean, euskal kultura berri bat.

Ikastolara begira jarriko naiz orain une batez, edo hobeto esan, euskarazko irakaskuntzara.

Euskal eskolak, urte haietan, era guztietako arazoak zituen: politikoa, ekonomikoa, pedagogikoa, linguistikoa, kulturazkoa.

Horregatik are miresgarriago eta txalogarriagoa da guraso haien adorea, iragarritako eskola porrotaren arriskua bere gain hartzeko ausardia; irakasleen militantzia (irabazitan motz, lanordutan luze), berauen entrega, dedikazioa, ikasteko gosea, pedagogikoki jantzi nahia (Freinet, Rosa Sensat, Piaget, Freire...). Erantsi honi hainbat euskaltzale eta kultur eragileren konpromisoa, eta hainbat elizgizonen konplizitate babeslea.

Euskal irakaskuntzak hasiera hartan zuen arazo larrienetako bat, berdin dio aurrena edo hamargarrena, testugintza zen, ikasmaterialen gabezia. Motxila bete liburu ibiltzen zarete orain, zama gehiegi eta guzti.

Ezagutu ditut nik Joseba Jaka eta anaiak paper mutur guztien bila. Dena zen balekoa: izan gramatika puska, izan aditz para-



digmak, edo literaturaren historia, Euskal Herriaren historia edo Euskal Herriko istorioak, ipuinak. Izan fitxak, izan apunteak. Bildu, ziklostilatu eta ikastolaz ikastola zabaltzen ikusiko zenituzten zuetako batzuek ere. Inprenta aurreko fasea zirudien.

Utzidazue anekdota txiki bat kontatzen. 1972. urtea behar zuen. Txillardegik atera omen zuen matematika liburuxkaren bat, adibideak marrazkiz adierazten zituen. Marrazkilariak, oso futbolzalea ez izan nonbait, eta 10eko futbol taldea egin zuen. Athletic gainera. Hamaikagarrena behar, ordea, ez futbol taldeak, baina bai adibideak. Hiru milako tirada zen. Berunezko moldea deseginda zegoen. Zer egin? Irtenbide bakarra zen posible: liburuak banan-banan hartu, batek tipexarekin fondoa txuritu, besteak profila marraztu eta hirugarrenak Athleticen koloreak eman. Hala kontatzen du Jon Jakak. Non ote dago gaur liburu hura? Liburu hark gaurko saririk ez zuen irabaziko agian, baina bai galanta meritua!

Ez zegoen ikaslibururik, eta nork prestatu ere ez. Sortu eta eratu egin behar izan ziren lantaldeak. Irakasleek bere Elkartea sortu zuten, Ikastoletako gurasoek Federazioa. Hauei esker hasi zen bideratzen ikasmaterialgintza, sortu eta itzuli. Itzulpenari uko egin gabe, baina sorkuntzaren bidea hobetsi zen berehala. Irakaskuntza propioak testu propioak behar zituen. Eta horrela abiatu zen hain oparo eta emankorra izan den bidea. Erraza ez beste guztia dena: inbertsioak zakuka behar, jendea prestatu eta lanean jarri behar. Eta hori, laguntza instituzional bako sisteman, entziklopedia gabeko kulturari. Zaila izaten jarraitzen du Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta guzti ere; atera kontuak orduan.

Orduan sumatu nuen nik entziklopedia baten premia. Testugintzaren hasiera haietan ere *Jakinen* nengoen eta gogoan dut zenbatak jotzen zuten *gugana material eske, informazio eske*. Beste kuku batek joko zigukeen entziklopedia orokor bat izan bagenu, non aurkitu informazio kontrastatu eta fidagarria, mundua geure begiz ikusia, Euskal Herria geure ikuspegiz emana. Horren faltan talde bakoitzak egin behar izan duen esfortzu erantsia ez da txantxetakoa.

Bidea urratzen ezagutu dut GORDAILU, monografiaren bidez historia eta geografia lantzen. "Ikastola Liburutegia" izen ponpoxoa jarrita bilduma osatzen hasi ziren irakasle haiek zentsurarekin egin zuten topo. Zorioneko mapekin. Nafarroa sartzea legez kontrakoa zen. Eta Iparraldea Euskal Herriko mapan agertzea, arazo diplomatikoa.

Gertuagotik ezagutu nituen geroxeago IKER taldekoak, *Anaitasuna* hamabostekariaren zuzendari nintzelarik. *Anaitasunako* kide nituen testugile haietako batzuk, eta IKEReko bulego berean egin genuen habia guk ere. *Saioka* egiten zuten han, saio huts baino gehiago, testugintza modernoaren lehen urrats sendoak.

Ikusi ditut gero editorialak lanean, elkarlanean. Aurrena hemengoak, gero besteak. Ikusi ditut Eusko Jaurlaritzaren plangintzak,



euskal irakaskuntzaren hedakuntza, eta laguntza mota desberdinak. Zehatz aztertu ditut horren guztiaren emaitzak: 1960ko hamarkadan urteko batera ez da iristen ikasmaterialen kopurua; 1970eko hamarkadan bada dozena pare bat titulu urteko; 80koan ematen da lehen jauzia: 100etik gora ikasliburu berri urteko; hurrengo hamarkadan bikoiztu egingo da: 200 titulu berri urteko, eta XXI. mendean batez beste 250etik gora titulu berri ekoizten da urtean.

Ez zaituztet gehiago aspertuko zifra kontuetan. Labur-labur esanda hauxe gorde buruan: kuantitatiboki sekulako gorakada egin badugu, ez dela gutxiago izan kalitatean, alderdi didaktiko eta pedagogikoan, diseinuan.

Bukatzer a noa.

Seme-alaba maiteok: egin den bidea alferrik galdu nahi ez baduzue, ekin eta jarrai aurrera egin beharko duzue, gurea bezalako herri txiki batean. Ez dago beste errezetarik. Gaur ere eginkizun da euskarazko irakaskuntza. Zer baztertu badakizue: nire eskola. 60ko hamarkadatik hona zer ikasirik franko duzue: ausardia, ilusioa, militantzia, eta hobetzeko etengabeko gogo. Osa-gai hauek gabe orain arteko biderik ez zen ibiliko.

Hobetzeko grinarik ez dela falta izan, sari hauetan ikusten da. Egin den bidea gogoan hartuz, zuen partez, zuen enkarguz, esker oneko agertuko naitzaie, hain kritika arin eta gaizto jasotzen duen ikasmaterialgintza alorreko egileei. Zuen testuak egin dituztenei, eskerrak ematen eta txalo jotzen utziko didazue, ezta? Hauei, gaur saria jasotzen duten hauei, eta orain arte bidegile izan diren guztiei.

Nire partez, eta zuen ikasle diren nire seme-alaben partez, milesker eta sari on, lagunok.

Eta zuoi, Garazi eta Manex, ez adiorik,

Joan Mari Torrealdai

